Ondoren, aipatutako Oinarriak aldatuak izan dira, Udalbatzak hartutako erabakiz; lehenengo aldiz, 2011ko abenduaren 29an egindako osoko bilkuran eta aldaketa horren testua 2012ko otsailaren 22ko 37. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena eta, bigarren aldiz, 2014ko otsailaren 27an egindako osoko bilkuran eta aldaketaren testua 2014ko maiatzaren 7ko 85. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena.

Jarraian traskribatzen da aipatutako Oinarrien testu bateratua:

## **GIZARTE EKINTZA ARLOARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK EMATEKO** **OINARRI ARAUTZAILE BEREZIAK**

### **I TITULUA - XEDAPEN OROKORRAK**

#### 1. artikulua.- Oinarri Arautzaile Berezi hauen helburua:

Oinarri hauen helburua da Gizarte Ekintzaren eremuan udalak garatzen dituen programak osatzeko dirulaguntzak, lehiakortasun egoeran, emateko arau bereziak ezartzea.

#### 2. artikulua.- Indarraldia:

Oinarri hauek indarraldi mugagabea izateko bokazioa dute, harik eta berriaz aldatu edo baliogabetu, edo osteko batzuekin ordezkatzeko diren arte.

#### 3. artikulua.- Araudien markoa

Oinarri hauek Galdakaoko Udalaren Dirulaguntzak Ematea arautzen duen Ordenantza Orokorrak ezarritako araudien markoan kokaturik daude. Ordenantza hori 2005eko ekainaren 24an egindako Udalaren Osoko Bilkuran onetsi zen (BAO zk. 172, 2005eko irailaren 9koa), eta 2007ko azaroaren 28an udalbatzak hartutako erabakiz aldatu zen (BAO zk 23, 2008ko otsailaren 1koa).

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako, aipatutako Udal Ordenantza Orokorrean, azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta Legearen Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan xedatutakoa kontuan hartu beharko dira.

#### 4. artikulua.- Deituriko dirulaguntzen zenbatekoa:

Oinarri berezi hauek urteko aurrekontuan jasotako proiektuak edo jarduerak finantzatzeko kreditu nahikorik eta egokirik izatearen menpe daude.

Horregatik oinarri hauek ez dute eskubiderik sortzen Galdakaoko Udalaren aurrean harik eta onetsi eta dagokion deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den arte. Deialdian deituriko dirulaguntzen gehieneko guztirako zenbatekoa eta egozten zaion aurrekontuko kreditua adieraziko dira.

#### 5. artikulua.- Onuradunek diru-laguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak:



Onuradun izaera lortu ahal izango dute diru-laguntza ematea arrazoitzen duen egoeran dauden pertsonak edo erakundeak edo oinarri arautzaile hauetako xedapen berezietan aurreikusitako inguruabarrak dituztenek, beti ere zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean badituzte.

Onuradun izaerarik ez dute lortzerik izango ondoko inguruabarrak dituzten erakundeak:

- a) Diru-laguntza Orokorren 38/2003 Legea, azaroaren 17koaren 13. artikuluan aipatutako edozein.
- b) Administrazio-zehapena edo zigorra jaso dutenak diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduz, sexu, arraza edo erlijio bereizkeriagatiko zehapenak barne, edo horretarako gaitasungabetzen dituen legezko debekurik ez dagokienak.
- c) Estatutuen arabera, sexu, arraza edo erlijioagatik ez diskriminatzea bere onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan. Horregatik, entitateek emakume eta gizonen berdintasunerako Legearekin espresuki bete beharko dute, programaren edo proiektuaren aurkezpenean espresuki islatuta geratuz, eta edukian lengoaiaren erabilera ez-sexista erabiliz. Horretarako, inplikaturako arloen aholkularitza eta laguntza izango dute, lankidetzarako eta zuzenketarako tarte nahikoa ezarriz, irizpena eman aurretik. Hori guztia emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez.

6. artikulua.- Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

6.1.- Epea: Eskabideak urteroko deialdietan adierazten den epean aurkeztu behar dira eta BAOean argitaratuko dira.

6.2.- Era: Entitate interesdunek Udaleko Erregistro Orokorrean edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideko 38.4 artikulua esaten dituen lekuetako edozeinetan aurkeztu beharko dituzte. **Oinarri hauetako eranskinean doan inprimaki normalizatua erabili beharko da.** (1. eranskina)

Eskabideak eta gainerako dokumentuak bide telematikoa erabiliz aurkezten badira, administrazio prozedura erkideak aurreikusitako moduak hartu beharko dira kontuan.

6.3.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Eskabideak ondoko dokumentazioaz aurkeztu behar dira:

- a) Izenpetzen duenaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.
- b) Entitate edo Elkartearen Identifikazio Fiskalaren Zenbakiaren fotokopia.
- c) Entitatearen edo elkartearen estatutuen fotokopia.
- d) Dagokion erregistro publikoan inskripzioa egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia.
- e) Dagokion Ogasun Publikoak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzak emandako egiaztariak zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin egunean dela egiaztatuz. 3.000 eurotik gorakoak ez diren eskabideak izanez gero, Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorreko 24. artikuluan aipatutako ardurapeko aitorten erraztuarekin ordezka daitezke.
- f) Aurreko ekitaldian garatutako jardueren memoria.
- g) Proiektuaren edo programaren laburpen-fitxa ( udalak emandako eredu-orria bete) eta, behar balitz, garatutako proiektua.
- h) Programa egiteko aurreikusitako gastuak eta diru-sarrerak banakatuta eta zehaztuta dituen aurrekontua, laguntzak eskatu zaizkien edo eman dizkieten bestelako erakunde publiko zein pribatuak adieraziz, zenbatekoa aipatuz (Udalak emandako eredu-a bete).
- i) Behar bezala betetako "Hartzekodunen Orria".
- j) Diru-laguntza zehatzen baterako, Xedapen Berezietan aipatzen den beste edozein dokumentu.

a), b), c), d), f), i) hizkietan adierazitako dokumenturen bat Administrazioaren esku balego, diru-laguntza eskatzen duenak ez aurkezteko eskubidea izango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35.f) artikulua araberako. Kasu honetan, ardurapeko aitortpena aurkeztu beharko dute dokumentazioa aurkeztu den unean zeuden inguruabarrak aldatu ez direla esanez, gai horretako dokumentuak espresuki adieraziz.

#### 7. artikulua.- Emateko prozedura:

Dirulaguntzak lehiakortasun egoeran emango dira; hainbatze sistema erabiliko da puntutako modalitatean, onartutako eskaera guztiek dirulaguntza izan dezaten.

Dirulaguntzak banatu ondoren, aurrekontuko partidan soberako zenbatekorik balego eta eskatutakoa baino diru-kopuru txikiagoa egokitu zaien eskabide onarturik balego, aipatutako eskatzaileen artean soberako zenbatekoaren puntukako hainbanaketa egingo litzateke berriro ere, kreditu erabilgarria agortu arte.

#### 8. artikulua.- Instrukzio, Antolakuntza eta Ebazpenak emateko organo eskuduna, ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea eta administrazio-isiltasunaren ondorioak.

Instrukzioa egiteko organo eskuduna: Gizarte Ekintza Arloko langile teknikoa.

- Emakidatzeko proposamena egiteko organo eskuduna: Dagokion Informazio-batzordea gaiagatik.

- Instrukzioa egiteko organo eskuduna: Alkatetza edo eskuordeko Zinegotzigoa.

- Ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea: Deialdia argitaratu denetik hasita sei hilabete eta emakidatutako zein ukatutako diru-laguntzak jakinaraziko dira. Era berean, diru-laguntza emakidatu ez izana ere jakinaraziko da, atzera egiteagatik, eskubideari uko egiteagatik edo artatu ez diren eskabideak emateko gainera etorritako ezintasun materialagatik.

- Administrazio-isiltasunaren ondorioak: Ezestekoak.

- Espresuki edo tazituki emandako behin betiko ebazpenaren aurka egiteko bidezkoak diren errekursoak: Aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluetan araututako hilabeteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Bi errekurtsuok ezin daitezke aldi berean aurkeztu.

#### 9. artikulua. Entitate onuradunen betebeharrak

9.1.- Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantzaren 9. artikuluan ezarritakoak eta bereziki dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean jarduera egitea justifikatu behar da, hala nola dirulaguntza ematea edo hartaz gozatzea xedatzen duen helburua betetzea, ondoren datorren moduan:

9.2.- Justifikatzeko gehienezko epea: BI HILABETE proiektua edo jarduera amaitzeko aurreikusitako hasierako datatik kontatzen hasita.

Dirulaguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena, diruz lagundutako proiektua edo jarduera bukatu eta gero egin denean izan ezik. Kasu horretan, BI HILABETEKO epea jakinarazpena jaso den biharamunetik hasita zenbatuko da.

9.3.- Justifikatzeko era: Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikulua xedatutakoaren arabera, diru-laguntza justifikatzeko balio juridikoa izango du ondorengo informazioa izango duen Kontu Justifikatzaile Erraztuak:

a) Ziurtagiria, diru-laguntza eman zeneko helburua, aurkeztutako proiektuaren arabera bete dela ziurtatuz. (2. Eranskina).

b) Jarduketaren memoria, egindako jarduerak eta izandako emaitzak aipatuz.

c) Programa burutzeari dagozkion diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, beste erakunde, entitate edota pertsona publiko edota pribatuen aldetik jasotako bestelako laguntzak edota diru-laguntzak zehaztuz. Balantzea idazkariak izenpetuta egon beharko da eta Entitate Onuradunaren Presidenteak emandako oniritzia izan beharko du. (3. Eranskina).

d) Bestelako Erakunde Publikoen diru-laguntzak edo laguntzak emakidatzeko erabakien kopia.

e) Gastuen fakturak, gutxienez, emandako diru-laguntzaren zenbatekoraino, diru laguntza egoki erabili dela arrazoizko ziurtasuna eman dezaketenak.

Gastuak justifikatzea zaila denean, gastuko frogagiriak onartuko dira (tiketak, creditrans...) diruz lagundutako kopuruaren %10eraino gehienez eta, inoiz ere ez, 200,00 eurotik gora.

e) Diruz lagundutako jarduera edo programa hedatzeko egindako publizitatearen alea, espresuki Galdakao Udalaren babesa agertuz, bi hizkuntza ofizialetan edo, hala ez bada, euskara hutsean.

9.4.- Justifikatu beharreko diru-kopurua: Arlo honetan dirulaguntzarik izan duten Entitate guztiek, froga-balioa duten fakturak eta gainerako dokumentuak bidali beharko dituzte, guztirako zenbatekoak **emandako dirulaguntza berdindu beharko duelarik**.

9.5.- Dirua itzuli behar da: Justifikazioa betetzen ez bada edo nahiko justifikatuko ez balitz, horrek jasotako diru-kopurua, berandutzako interesekin batera, itzuli beharra ekarriko luke, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren arabera.

9.6.- Dirulaguntzaren publizitatea entitate onuradunaren aldetik:

9.6.1. Diru-laguntza izan duen programa, jarduera, inbertsio edo edozein motako jarduketak, Galdakao Udalaren aldetik izan duen babesari dagokionean, legez ezarrita dauden zabalkunde-neurriak hartu beharko ditu erakunde onuradunak.

Era berean, publizitate guztia euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz erredaktatu behar da.

Zabalkunde-neurriak diruz lagundutako helburuari egokitu beharko zaizkio, bai eraz bai iraupenez, entitate emailearen irudi instituzionala sartuz, hala nola finantzaketa publikoari buruzko legendak jarritz bai karteletan, oroigarritzko plaketan, inprimatutako materialetan, baliabide elektronikoetan zein ikus-entzunezkoetan, edota komunikabideetan egindako aipamenetan.

9.6.2 Publizitatean, eta droga-mendekotasun arloko prebentzioa, asistentzia eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legea eta ondoko aldaketak betez, tabakoaren eta edozein motatako edari alkoholikoen kontsumoa ezin izango da sustatu (kartelak, babesa, sariak e.a.).

9.6.3. Jardueren publizitatean, eta emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez, lengoaiaren erabilera ez-sexista egin beharko dute. Era berean, pertsonak ezin izango dira aurkeztu giza duintasunaren aldetik gehiago edo gutxiago balira bezala, sexuaren arabera, edo objektu sexual huts bezala; modu berean, ezin izango da justifikatu, hutsal gisa tratatu edota emakumeen aurkako indarkeria bultzatu.

10. artikulua.- Diruz lagundutako jarduerarako azpikontratazioa hirugarren batzurekin

Entitate onuradunak hirugarren batzurekin, diruz lagundutako jardueraren exekuzio partziala soilik azpikontrata dezake, Dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan aurreikusitako baldintzak eta eskakizunak betez.

Edozein kasutan ere, azpikontratazioaren portzentaia diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren 100eko 50a ezin izango du gainditu.

11. artikulua.- Dirulaguntzak ordaintzea:

Normalean, dirulaguntzak ordainketa aurreratu bitartez egingo dira, justifikatu baino lehenago, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoagatik. Ez da bermerik eskatuko dirulaguntzaren barne dauden jardunak egin ahal izateko finantzaketa moduan.

Emandako dirulaguntza Udal honetako Hartzekodunen erregistroan dagoen entitatearen kontu korrontean ordainduko da banku-transferentzia bitartez.

12. artikulua.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.

Galdakaoko Udaletik jaso daitezkeen dirulaguntzak bateragarriak izan beharko dira, hain zuzen ere, bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatutatik, helburu berbererako jasotako bestelako dirulaguntza, laguntza edo baliabideekin. Nolanahi ere, dirulaguntza zein bestelako iturrietatik lortutako finantzaketa-kopuruak ezin izango du diruz lagundutako programaren kostua gainditu.

13. artikulua.- Emandako dirulaguntzen publizitatea:

Udalak iragarki-taulan hiruhilabete bakoitzaren hurrengo hilabetean argitaratuko du epealdi horretan zehar emandako dirulaguntzen zerrenda.

Era berean, aipatutako zerrenda iragarki-taulan argitaratzea agintzen duen ebazpenaren laburpena argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

## **II. TITULUA.- XEDAPEN BEREZIAK**

### **I. KAPITULUA.- NAGUSIEN ELKARTEENTZAKO LAGUNTZAK**

#### 14. artikulua.- Dirulaguntzaren helburua eta xedea

Galdakao udalerriko nagusien Elkarten aisialdi eta astialdiko jarduerak finantzatzea, aipatutako kolektiboentzako interesgarriak diren aisialdiko jardueren gastuei aurre egin diezaieten.

#### 15 artikulua.- Entitate Onuradunen Baldintzak

Legez eraturako nagusien elkarteak izatea eta Galdakaon egoitza soziala dutenak, nagusiki euren jarduerak Udalerrian garatu behar dituztelarik. Ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- Formalki eratuta eta inskribaturik egon beharko dira Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistro Orokorrean eta Galdakao Udaleko Elkarten Udal Erregistroan.
  - Irabazi-asmorik ez izatea.
  - Estatutuen arabera, sexu, arraza edo erlijioagatik ez diskriminatzea bere onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan.
- Horregatik, entitateek emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete beharko dute espreski.
- Estatutuetan espreski islatu beharko da bere helburuen artean dirulaguntza jaso nahi duten proiektu edo programak egitea dagoela edo dokumentazio frogagarrien bidez egiaztatu beharko da entitateak eremu horretan iraunkorki diharduela.

#### 16. artikulua. Laguntzak emateko irizpide objektiboak:

Eskabideak baloratzeko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

##### ***A) ELKARTEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK:***

#### **1. Udal programetan laguntzeagatik: Inauteriak, Olentzero, San Juan, Osasun Astea, Errege Kabalgata, Santakurtzak, Martxoaren 8a, Gazte Programa: 10 puntu arte.**

Programa 1 .....	2 puntu.
2 programa .....	4 puntu
3 programa .....	6 puntu
4 programa .....	8 puntu
5 programa edo gehiago .....	10 puntu

#### **2. Bazkide kopurua: 15 puntu arte.**

0tik 20 bazkidera .....	2 puntu
21etik 50 bazkidera .....	5 puntu
51tik 100 bazkidera .....	7 puntu
101etik 200 bazkidera .....	10 puntu
201etik 300 bazkidera .....	12 puntu
300 bazkidetik gora .....	15 puntu

**B) PROGRAMEI BURUZKO IRIZPIDEAK**

**1.- Euskararen trataera eta erabilera: 10 puntu arte.**

Proiektua euskaraz edo elebitan aurkezten dute: ..... 2 puntu  
Euskararen sustapena eta erabilera  
Nagusien kolektiboaren artean bultzatzen duten  
Jarduerak edo programak egiten dituzte ..... 8 puntu

**2.- Genero ikuspegiaren trataera: 10 puntu arte.**

Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera  
Ez sexista kontuan hartuz  
aurkezten dute proiektua ..... 2 puntu  
Emakumeen parte-hartzea Zuzendaritza Batzordean ..... 8 puntu

**3.- Programaren jarraikortasuna eta iraunkortasuna: 10 puntu arte.**

1etik 3 urtera ..... 2 puntu  
4tik 5 urtera ..... 4 puntu  
6tik 10 urtera ..... 6 puntu  
11tik 20 urtera ..... 8 puntu  
20 urtetik gora ..... 10 puntu

**4.- Iraupena: 15 puntu arte.**

Astebetetik behera ..... 2 puntu  
Astebetetik 14 egunera ..... 4 puntu  
Hamabostaldi 1etik hilabetera ..... 6 puntu  
3 hilabete arte ..... 8 puntu  
3tik 6 hilabetera ..... 10 puntu  
Ikasturtekoa edo urtekoa ..... 15 puntu

**5.- Proiektuaren kalitate teknikoa: 30 puntu arte, ondoko aspektuen definizioa eta deskribapena kontuan hartuz.**

Helburuak ..... 5 puntu  
Jarduerak ..... 5 puntu  
Metodologia ..... 4 puntu  
Justifikazioa ..... 4 puntu  
Hartzaileak ..... 2 puntu  
Ebaluazioa ..... 5 puntu  
Baliabideak ..... 3 puntu  
Aurrekontua ..... 2 puntu

## **II. KAPITULUA.- ENTITATE SOZIALENTZAKO LAGUNTZAK**

### **17. artikulua.- Dirulaguntzaren helburua eta xedea**

Gaixotasuna, ezintasunak edo muturreko beharrianak dituzten pertsonen laguntza emateko helburuarekin eratu diren irabazi-asmorik gabeko Elkarrekin garatutako programak finantzatzea.

### **18. artikulua.- Entitate Onuradunen Baldintzak**

Onuradunak izango dira, ezintasun funtzionala edo izaera sozialeko ezintasuna duten pertsonen Udalerriko Entitate edo Elkarrekin guztiak, edo udalerrikoak ez izan arren, Galdakako udalerrian bizi diren pertsonentzako programak garatzen dituztenak izatea. Onuradunek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- Formalki eratuta eta inskribaturik egon beharko dira Eusko Jaurlaritzako Elkarrekin Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan eta Galdakako Udaleko Elkarrekin Udalerriko Erregistroan (azken baldintza hau, udalerriko Entitate edo Elkarrekin badira).

- Irabazi-asmorik ez izatea.

- Estatutuen arabera, sexu, arraza edo erlijioagatik ez diskriminatzea bere onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan. Horregatik, entitateek emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete beharko dute espreski.

- Estatutuetan espreski islatu beharko da bere helburuen artean dirulaguntza jaso nahi duten proiektu edo programak egitea dagoela edo dokumentazio frogagarrien bidez egiaztatu beharko da entitateak eremu horretan iraunkorki diharduela.

19. artikulua.- Dokumentazio BEREZIA: Udalerriko entitateak ez badira, eskabideak, eskatutako dokumentazio orokorraz gain, **Galdakako auzokide hartzaileen zerrendarekin** batera aurkeztu beharko dira.

### **20. artikulua.- Laguntzak emateko irizpide objektiboak**

Eskabideak baloratzerakoan ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

#### **1.- Euskararen trataera eta erabilera: 5 puntu arte.**

Proiektua euskaraz edo elebitan aurkezten dute: 2 puntu

Programak euskararen erabilera sustatzen du zuzentzen zaion kolektiboan 3 puntu

#### **2.- Genero ikuspegiaren trataera: 5 puntu arte.**

Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera

Ez sexista kontuan hartuz

aurkezten dute proiektua ..... 2 puntu

Emakumeen parte-hartzea Zuzendaritza Batzordean.. 3 puntu

#### **3. Galdakako udalerriko familia bazkide kopurua: 20 puntu arte.**

1etik 2 familiara ..... 5 puntu

3tik 4 familiara ..... 10 puntu

5etik 6 familiara ..... 15 puntu

6 familiaratik gora ..... 20 puntu

#### **4. Programaren jarraikortasuna eta iraunkortasuna: 10 puntu arte.**

1etik 3 urtera ..... 2 puntu

4tik 5 urtera ..... 4 puntu

6tik 10 urtera .....	6 puntu
11tik 20 urtera .....	8 puntu
20 urtetik gora .....	10 puntu

**5. Programaren elementu berritzaileak: 10 puntu arte.**

Elementu berritzaileak .....	5 puntu
Proiektu berritzailea .....	10 puntu

**6. Proiektuaren interes soziala: 15 puntu arte.**

Kontuan hartuko dira helburuak, hartzaileak, antzemandako beharrezanei ematen zaien erantzuna eta udalerrian programa hori egiten duen erakunde publiko edota pribaturik ez egotea.

**7. Iraupena: 10 puntu arte.**

Astebetetik behera.....	puntu 1
Astebetetik 14 egunera.....	2 puntu
Hamabostaldi 1etik hilabetera .....	4 puntu
3 hilabete arte.....	6 puntu
3tik 6 hilabetera .....	8 puntu.
Ikasturtekoa edo urtekoa .....	10 puntu.

**8. Proiektuaren kalitate teknikoa: 25 puntu arte, ondoko aspektuen definizioa eta deskribapena kontuan hartuz.**

Helburuak .....	4 puntu
Jarduerak .....	4 puntu
Metodologia .....	3 puntu
Justifikazioa .....	3 puntu
Hartzaileak .....	2 puntu
Ebaluazioa.....	4 puntu
Baliabideak.....	3 puntu
Aurrekontua .....	2 puntu



### **III. KAPITULUA.- GARAPENERAKO LANKIDETZA GAIETARAKO LAGUNTZAK**

#### **21. artikulua.- Dirulaguntzaren helburua eta xedea**

Garapen bideko herrialdeetan Garapen sozial eta ekonomikorako Lankidetzako proiektuak edo programak finantzatzea.

#### **22. artikulua.- Entitate Onuradunen Baldintzak**

Aurreko atalean deskribatutako jarduera sustatu edota burutzen duten eta behar bezala erregistratuta dauden Entitate, Elkarte edo Gobernu Kanpoko Erakunde irabazi-asmorik gabeko guztiak.

- Bizkaiko Lurralde Historikoan izan beharko du egoitza zentrala edo ordezkari iraunkorra. Ondorio hauek izateko, ordezkari iraunkorra duela ulertuko da, entitate horrek, dokumentu bidez egiaztatutako egitura esanguratsuak izatea Bizkaian. Horretarako, Bizkaian erabiltzen duen lokalaren edo lokalaren deskribapena aurkeztu beharko da, metro koadroei buruz eta ekipo informatikoei eta komunikazio-ekipoen kopuruari dagokion informazioa emanaz. Kasu honetan, ordezkari iraunkorrak eskabidea aurkezterakoan zuzeneko erantzukizuna bere gain hartzen du eta Bizkaiko bulegoan dokumentazioa, kontularitza eta kogestioa mantentzeko konpromisoa hartzen du. Proiektuaren kogestioaz ulertzen da, gutxienez, proiektuaren identifikazioan, formulazioan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzen duela.
- Formalki dagokion EAEko erregistroan eratu eta inskribatuta egon behar da, deialdi hau argitaratu den data baino bi urte aurretik.
- Irabazi-asmorik ez izatea.
- Estatutuen arabera, sexu, arraza edo erlijioagatik ez diskriminatzea bere onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan. Horregatik, entitateek emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete beharko dute espreski.
- Estatutuetan espreski islatu beharko da helburuen artean garapen bideko herrialdeei begirako garapen-proiektu edo programak egitea dagoela edo dokumentazio frogagarrien bidez eremu horretan iraunkorki diharduela egiaztatuta beharko da.

#### **23. artikulua.- Garapenerako Lankidetzako proiektuen baldintzak edota programak:**

23.1.- Proiektuek gehienez 12 hilabeteko iraupena izango dute, eta indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian eta transferentzia sartu zenetik hasita ondoko 2 hilabete iragan aurretik hasiko dira.

23.2.- Proiektuak egin daitezke herriko bazkide baten edo garapen bideko herrialdeetan atzerriko bitartekari baten bitartez. Herriko bazkide hau irabazi asmorik gabeko erakundea edo erakunde publiko bat izan behar da. Lankidetzaren formalizazioari buruzko dokumentua erantsi behar da, bertan erakunde eskatzailearen eta herriko bitartekariaren konpromisoak eta erantzukizunak adieraziz.

Diru-laguntza eskatu duen erakundearen erantzukizuna izango da bete izanaz eta Galdakao Udalaren aurrean behar bezala egiaztatzeaz, exekuzioa herriko bazkideek edo atzerriko bitartekariak osorik edo partzialki egin izana edozein izanda ere.

Diru-laguntza herriko bazkideek edo atzerriko bitartekariak osorik edo partzialki exekututzea ez da azpikontratatutzat joko, 38/2003 Legearen 29. artikulua ondoan araberak.

#### **23. BIS artikulua.- Dokumentazio BEREZIA:**

Proiektua garapen bideko herrialdeetako tokiko bazkide baten bitartez egiten bada, erakunde eskatzailearen eta herriko bitartekariaren konpromisoak eta erantzukizunak adierazten dituen dokumentua erantsiko zaio eskabideari.

#### **24. artikulua.- Proiektuaren aldaketa:**

Proiektuari funtsezko aldaketa egiteko, bai garapenean bai exekuzioan, zein hartzaileen edota bertako protagonistaren aldetik, proiektua egiteko epea amaitu aurretik eskatu beharko zaio idatziz Galdakako Udalari, beronek espreski baimendu beharko duelarik.

25. artikulua.- Laguntzak emateko irizpide objektiboak

Eskabideak baloratzeko ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

**A) ELKARTEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK:**

**1.- Egoitza soziala Galdakaon: 10 puntu arte.**

Bai..... 10 puntu  
Ez 0 puntu

**2.- Galdakako udalerriko bazkide kopurua: 10 puntu arte.**

5etik behera ..... 0 puntu  
6tik 20ra ..... 5 puntu  
20tik gora ..... 10 puntu

**3. Entitatearen jarraikortasuna eta iraunkortasuna: 5 puntu arte.**

2tik 5 urtera ..... 2 puntu  
6tik 8 urtera ..... 4 puntu  
8 urtetik gora ..... 5 puntu

**B) PROGRAMEI BURUZKO IRIZPIDEAK:**

**1.- Euskararen trataera eta erabilera: 2 puntu arte.**

Proiektua euskaraz edo elebitan aurkezten dute..... 2 puntu

**2.- Genero ikuspegiaren trataera: 5 puntu arte.**

Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera  
Ez sexista kontuan hartuz  
aurkezten duten proiektua ..... 2 puntu  
Emakumeen parte-hartzea Zuzendaritza Batzordean ..... 3 puntu

**3. Programaren hartzaileak: 10 puntu arte.**

Haurrak ..... 10 puntu  
Emakumeak ..... 7 puntu  
Azpiegiturak ..... 4 puntu  
Herritarrak orokorrean ..... puntu 1

**4. Programaren elementu berritzaileak: 5 puntu arte.**

Elementu berritzaileak ..... 2 puntu  
Programa berritzailea ..... 5 puntu

**5. Hartzaileen bizimodu baldintzen hobekuntza: 6 puntu arte.**

Sanitarioak ..... 2 puntu  
Hezkuntzakoak..... 2 puntu

Kulturalak ..... 2 puntu

**6. Programaren iraupena: 5 puntu arte.**

6 hilabete arte ..... 2 puntu

6 hilabetetik gora ..... 5 puntu

**7. Proiektuaren kalitate teknikoa: 18 puntu arte, ondoko aspektuen definizioa eta deskribapena kontuan hartuz.**

Helburuak ..... 5 puntu

Jarduerak ..... 5 puntu

Metodologia ..... 2 puntu

Justifikazioa ..... 2 puntu

Ebaluazioa ..... 2 puntu

Baliabideak ..... 2 puntu

**8. Galdakako udalerriarekin senideturik dagoen udalerrian garatzen da programa..... 24 puntu.**

#### **IV. KAPITULUA.- HAURREN ALDI BATEKO EGONALDIETARAKO LAGUNTZAK**

##### 26. artikulua.- Diru-laguntzaren helburua eta xedea

Garapen bideko herrialdeetatik edo edozein hondamendik kaltetutako herrialdeetatik datozen haurren, edota bizimoduaren kalitatea hobetzeko helburuarekin osoko garapena izateko gaixotasunak edo egoera soziofamiliar kaltegarriak jasaten dituzten haurren aldi bateko egonaldien proiektuak edo programak finantzatzea.

**Galdakaoko udalak haurren aldi bateko egonaldien programetarako emandako diru-laguntzek, Galdakaoko udalerriko harrera familiek egindako ekarpenak konpentsatzeko balioko dute.**

##### 27. artikulua.- Entitate Onuradunen Baldintzak

Aurreko atalean deskribatutako jarduera sustatu edota burutzen dituzten elkarteak edo entitateak izan daitezke onuradunak, ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- Formalki eratuta eta inskribaturik egon beharko dira Eusko Jaurlaritzako Elkarten Erregistro Orokorrean edo dagokion erregistro publikoan eta Galdakaoko Udaleko Elkarten Udal Erregistroan (azken baldintza hau, udalerriko Entitate edo Elkarteak badira).

- Irabazi-asmorik ez izatea.

- Egoitza soziala Galdakaoko udalerrian izatea, edo udalerrikoak ez izan arren, Galdakaoko udalerrian bizi diren pertsona abegi-emaleentzako programak garatzea.

- Estatutuen arabera, sexu, arraza edo erlijioagatik ez diskriminatzea bere onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan. Horregatik, entitateek emakume eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bete beharko dute espreski.

- Estatutuetan espreski islatu beharko da bere helburuen artean dirulaguntza jaso nahi duten proiektu edo programak egitea dagoela edo dokumentazio frogagarrien bidez egiaztatuta beharko da entitateak eremu horretan iraunkorki diharduela.

##### 28. artikulua.- Dokumentazio BEREZIA:

Eskabideak, eskatutako dokumentazio orokorraz gain, **Galdakaoko auzokoak diren proiektuaren familia hartzaileen kopuruaren zerrendarekin eta harrera familia bakoitzak bere gain hartu behar duen kostuarekin batera aurkeztu behar dira.**

**Diru-laguntzaren justifikazioan, egiaztagiria sartu behar da. Bertan Galdakaoko udalak harrera-programari emandako diru-laguntza, Galdakaoko harrera familia bakoitzak bere gain hartutako gastu subentzionagarriak konpentsatzeko izan dela.**

29. artikulua.- Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa: Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa, Galdakaoko familiak hartu duen haur bakoitzeko gotz dakioken gehienezko zenbatekoa izango da.

##### 30. artikulua.- Laguntzak emateko irizpide objektiboak:

Eskabideak baloratzerakoan ondoko irizpideak hartuko dira kontuan:

#### **A) ELKARTEARI DAGOZKION IRIZPIDEAK:**

**1.- Egoitza soziala Galdakaon: 10 puntu arte.**

Bai ..... 10 puntu  
Ez ..... 0 puntu

**2.- Galdakao udalerriko bazkide kopurua: 10 puntu arte.**

5etik behera ..... 0 puntu  
6tik 20ra ..... 5 puntu  
20tik gora ..... 10 puntu

**3. Entitatearen jarraikortasuna eta iraunkortasuna: 5 puntu arte.**

2tik 5 urtera ..... 2 puntu  
6tik 8 urtera ..... 4 puntu  
8 urtetik gora ..... 5 puntu

***B) PROGRAMEI BURUZKO IRIZPIDEAK:***

**1.- Euskararen trataera eta erabilera: 5 puntu arte.**

Proiektua euskaraz edo elebitan aurkezten dute: ..... 2 puntu  
Programak euskararen erabilera sustatzen du  
zuzentzen zaion kolektiboan ..... 3 puntu

**2.- Genero ikuspegiaren trataera: 5 puntu arte.**

Hizkuntzaren eta irudiaren erabilera  
Ez sexista kontuan hartuz  
aurkezten dute proiektua ..... 2 puntu  
Emakumeen parte-hartzea Zuzendaritza Batzordean ..... 3 puntu

**3. Programaren hartzaile adingabeen kopurua: 10 puntu arte.**

101etik gora ..... 10 puntu  
51tik 100era ..... 7 puntu  
0tik 50era ..... 4 puntu

**4. Programaren elementu berritzaileak: 10 puntu arte.**

Elementu berritzaileak ..... 5 puntu  
Programa berritzailea ..... 10 puntu

**5. Programaren iraupena: 15 puntu arte.**

3 hilabetetik behera ..... 5 puntu  
3tik 6 hilabetera ..... 10 puntu  
6 hilabetetik gora ..... 15 puntu

**6. Proiektuaren kalitate teknikoa: 30 puntu arte, ondoko aspektuen definizioa eta deskribapena kontuan hartuz.**

Helburuak ..... 5 puntu  
Jarduerak ..... 5 puntu  
Metodologia ..... 3 puntu  
Justifikazioa ..... 3 puntu  
Hartzaileak ..... 3 puntu  
Ebaluazioa ..... 5 puntu

Baliabideak ..... 3 puntu  
Aurrekontua ..... 3 puntu

### **AZKEN XEDAPENA**

Oinarri Arautzaile Berezi hauek, behin betiko onetsi ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira osorik, eta indarrean sartuko dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea iragan ondoren.

Hori jendaurrean jartzen da jakinaren gainean egon daitezen eta ondorioak izan ditzan.